Editorial

# Mendira Catalunyara

PYRENAICAN zor bat genuen pendiente Catalunyarekin. Han lagun piloa dugu eta gainera bere paisaia mendi harrigarriez jantzita dago. Esaldi hauekin

***"Damunt lo glaç negregen granítiques arestes,***
***com d'ones formidables esgarrifoses crestes,"***

*mosen Jacinto Verdaguer ikaratu egiten zen Pirineoari buruz hitzegiterakoan, eta beste hauekin*

***"els herbatges verds on canta l'esquellot de la ramada,***
***i el bosc silenciós i la masia lassa!...."[1]***

*Joan Maragallek Montseny deskribatzen zuen eztiki.*

*Catalunyako mendiak ez dira Pirineoa soilik. Beste mendi asko dago handik eta hemendik Catalunyako geografia osoan zehar. Beraz, erabaki genuen bazela garaia ale monografiko bat egiteko mendi horiei buruz eta pentsatu genuen birpasatzea gure kontaktu, kide eta soka-lagunen zerrenda, bertako kolaboratzaileak bilatzeko. Hasi ginen dei batzuk egiten ea zer gertatzen zen. Erantzuna txundigarria izan da.*

*Editorial hau ezin da izan beraiekiko eskerronaren adierazpidea baino. Pertsona bat aukeratzekotan Enric Faurarekin geratzen naiz. Honek, gure mezua jaso eta berehala bidali zigun Vertexeko kolaboratzaileen zerrenda. Berauengana zuzendu ginen eta azkar hasi ginen onespen-erantzunak hartzen. Hain izan zen erantzuna gogatsua ezen gure gaitasuna laister gaindituri geratu zela: ale honetan sar zitezkeen artikuluak baino gehiago jaso genituen. Horregatik hurrengo adierazpenak barkeske izan behar du, barkeske beren kolaborazioa laburtu egin behar izan diegun haiei eta batez ere Ignasi Planasi, noren artikulua Prades eta Montsanti buruzkoa hurrengo alean argitaratuko baita.*

*Pyrenaicaren idazlaritzak buru belarri aritu behar izan du etengabe heltzen ziren artikuluen aurrean ardura hartzeko......Baina, hala ere, benetako plazerra izan da guretzat hain maila altuko jendearekin harremanetan jarri izana. Beren profezionaltasuna maila handikoa izan da eta beren begikotasuna, gainezkakoa. Zuon aurrean duzue emaitza: orain apur bat gehiago ikas dezakegu zeraren gainean, non eta nola igo mendira eta praktikatu eskalada eta bidezidorzaletasuna, mendi-eskia, BTT eta haitzartezaletasuna, eta zeintzuk diren mendi haietako jendearen historia, baloreak eta arazoak.*

*Zor bat pendiente genuen Catalunyarekin eta beste bat dugu orain: aurkitu dugun begikotasunari erantzutea. Beraz gonbidatu egiten dizuegu Catalunyara joaten FEECen eskutik (eta CECen eskutik ere, ezin baitugu ahaztu Ferran Alexandri, nork emakumezko baten kolaborazio izugarri bat lortu baitzigun) gozatzera bere mendiez eta bere jendeaz. Ale honetan iradokizun asko eta onak aurkituko dituzue.*

*1 "izotzaren gainetik ertz granitikoak beltzune bihurtzen dira, olatu harrigarrien ertz ikaragarriak izango balira bezala"*
*"belardi berdeak non artaldearen arranak kantatzen duen, eta baso ixila eta baserri ahuldua..."*

# Al monte a Catalunya

TENIAMOS en Pyrenaica una deuda pendiente con Catalunya, un país en el que tenemos tantos amigos, y un paisaje maravillosamente dotado de montañas, desde aquello de

***"Damunt lo glaç negregen granítiques arestes,***
***com d'ones formidables esgarrifoses crestes,"***

con que se estremecía mosén Jacinto Verdaguer hablando del Pirineo, hasta eso de

***"els herbatges verds on canta l'esquellot de la ramada,***
***i el bosc silenciós i la masia lassa!..."[1]***

como describía dulcemente Joan Maragall el Montseny.

Porque no es sólo el Pirineo. Hay otras muchas montañas salpicando toda la geografía catalana. Así que decidimos que era tiempo de hacer un número monográfico sobre esas montañas y pensamos en repasar nuestra lista de contactos, colegas y compañeros de cordada, para buscar colaboradores locales. Empezamos a hacer algunas llamadas a ver qué pasaba. La respuesta ha sido apabullante.

Este editorial no puede ser otra cosa que una expresión de agradecimiento. Por elegir una persona me quedo con Enric Faura, que a vuelta de correo nos facilitó la relación con los colaboradores de Vertex. Nos dirigimos a ellos y en seguida empezamos a recibir respuestas de aceptación. Fue tan entusiasta que llegó a hacernos perder los papeles: hemos recibido más artículos de los que nos cabían en este número. Por eso la siguiente expresión es de disculpas, a aquellos cuya colaboración hemos tenido que recortar y sobre todo a Ignasi Planas, cuyo artículo sobre Prades y Montsant aparecerá en un próximo número.

El equipo de redacción de Pyrenaica en pleno ha tenido que trabajar a tope para hacerse cargo de los artículos que iban llegando... Pero ha sido un verdadero placer, el poder relacionarnos con gente de una clase tan alta, montañeros que suman un excelente nivel de profesionalidad y un desbordante grado de cordialidad. Ante vosotros tenéis el resultado: ahora podemos conocer un poco más dónde y cómo subir al monte y practicar escalada y senderismo, esquí de montaña, BTT y barranquismo, y cuáles son la historia, los valores y los problemas de la gente de aquellas montañas.

Teníamos una deuda pendiente con Catalunya y ahora tenemos otra: responder a la cordialidad que nos hemos encontrado. Así que os invitamos a ir a Catalunya de la mano de la FEEC (y del CEC, no podemos olvidar a Ferran Alexandri, que nos consiguió por fin una magnífica colaboración femenina) a disfrutar con sus montañas y con su gente. En este número encontraréis muchas y muy buenas sugerencias.

1 "sobre el hielo negrean graníticas aristas, como de olas formidables espeluznantes crestas"
"los verdes prados donde canta la esquila del rebaño, y el bosque silencioso y la masía cansada..."

Txomin Uriarte